

Donostia, 2015eko urriaren 23a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI:

KONTROL MOZIOA, HONDAKINAK KONTROLIK GABE BOTATZEA DELA ETA

Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Ametzagaña parkean legez kanpo botatako hondakinak direla-eta Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak tonaka hondakin sortzen ditu urtero. Hondakinen konposizioa heterogeneoa da eta faktore ugariaren mende dago. Hondakinok lehen sektoretik etor daitezke (nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza), edo bigarrenetik (industria eta hiria). Hondakin industrialetan askoz ere klase gehiago dago hiri hondakinetan baino, eta tartean dira elementu toxikoak eta arriskutsuak ere.

Konstituzioko 45. artikulua honela dio: «1.- Guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea, eta guztion eginbeharra ere bada hori zaintzea. 2.- Botere publikoek zainduko dute baliabide natural guztien erabilera arrazionala, bizitza-kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta berriztatzeko, behar-beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz. 3.- Norbaitek aurreko paragrafoak xedatu duena hausten badu, legezko mugen barruan horri zehapen penalak ezarriko zaizkio, edo, hala denean, administrazio-zehapenak, bai eta eragindako kaltea konpontzeko betebeharra ere.

Banakoan eta enpresa pribatuen betebeharra da legez kanpo bota dituzten hondakinak kentzea edo baimenik gabe sortu dituzten hondakindegia estaltzea; administrazio publiko eskudunen betebeharra da, ostera, behar beste baliabide jartzea inork halako hondakinik ez duela botako bermatzeko, bai eta halakoen erantzuleak zigortzea ere.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari ken ditzala lehenbailehen Ametzagañako zabortegiko elementu kutsatzaileak, horien artean zuntz-zementuzko uralita dagoenez gero. Izan ere, uralita mota hori amiantoz osatua dago eta amiantoa oso kantzerigenoa da. Orobat, eskatzen dio iker dezala material horren jatorria zein den, dagokion zigorra aplikatzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari itxi dezala Ametzagañako legez kanpoko hondakindegia.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin dezala plan bat legez kanpoko hondakindegia guztiak pixkanaka kentzeko, zigor prozedura arinago bat ezarrita.

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari handitu eta hobetu dezala legez kanpoko isurketen ikuskapena, bai eta kontrolatu gabeko hondakindegia eta zabortegiena ere, lehentasuna emanez, betiere, zaborrik gehien pilatua duten tokiei eta, horien artean, Ametzagañako legez kanpoko zabortegiari.

5.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin ditzala herritarrak kontzientziatzeko kanpainak, banakoei eta enpresei zuzenduak, kontrolik gabeko isurketak arbuizatzeko, bai eta garbiguneen erabilera sustatzeko ere.

6.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen die administrazio eskudun guztiei hobeto koordina ditzatela legez kanpoko hondakindegia desagerrarazteko ekintzak.

Izpta.: Loïc Alejandro
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.